baliorik izango. Hala ere, eta salbuespen gisa, partidako arbitroak jokatzeko ordua edo lekua aldatu ahal izango du, ezinbesteko kasua edo ustekabeko larrialdia gertatzen denean, partidak jokatzeko bide guztiak erabiltzeko betebeharra betez.

Federazioak baimenik eman gabe egunez, orduz edo jokalekuz aldatzen denean, etxeko taldeak kanon bat, ezarritako tarifaren bikoitza dena, ordaindu behar du aldaketa dela-eta. Horrez gain, federazioaren jurisdikzio-organoei erantzuleei ezarritako diziiplina-erantzukizunak ere izango ditu taldeak.

219. artikulua

Bizkaiko Saskibalo Federazioak argitaratuko du lehiaketa bakoitzaren partiden egutegiak, jokalekuak eta orduak adierazita. Egutegi hori argitaratzen denetik aurrera ez da aldaketarik onartuko, salbu eta aurreko artikuluetan adierazitakoak.

Bizkaiko Saskibalo Federazioak, lehiaketa bakoitza hasi aurretik, zerrenda zehatz bat bidaltzen die klubei; bertan, lehiaketa, talde eta azpitalde bakoitzari dagozkion taldeak, jokalekuak eta orduak jasotzen dira.

Hasierako inskripzioarekiko aldaketarik gertatuz gero, hil bakoitzaren 20a baino lehenago jakinarazi behar da, eta klubei hileroko bidaltzen zaien programazioan jasoko da aldaketa. Aldaketa jasotzen ez bada edo aldaketaren berri ematen ez bada, Lehiaketa Batzordeak ez du berriro ere programan sartuko jokatzeko ez den partida. Beraz, klubek aldaketak jaso direla ziurtatu behar dute hila amaitu aurretik, edo federazioaren iragarki – oholean zein web orrialde ofizialean (<http://www.bizkaiabasket.com>) egin behar dute kontsulta.

220. artikulua

Egutegian adierazitako data izango da partida jokatzeko eguna, ondorio guztietarako.

Ezinbesteko arrazoi batengatik Bizkaiko Saskibalo Federazioak uste badu partida ezin dela egutegian ezarritako egunean jokatu,

será valida. Sin embargo, y como excepción, el árbitro del encuentro podrá variar la hora o el terreno de juego, en caso de fuerza mayor o emergencia imprevisible, en cumplimiento de la obligación impuesta de agotar todos los medios para que los encuentros se celebren.

Cuando se produzca un cambio de fecha, hora o terreno de juego que no haya sido autorizado por la Federación, el equipo local deberá satisfacer por este cambio un canon igual al doble de la tarifa señalada, todo ello con independencia de las responsabilidades que a efectos disciplinarios acuerden los Órganos Jurisdiccionales de la Federación ante los responsables de dichos cambios.

Artículo 219

La Federación Vizcaína de Baloncesto, publicará el calendario de encuentros de cada competición señalando campos y horarios. A partir del momento de la publicación del calendario no será admitida ninguna modificación salvo las expuestas en los artículos anteriores.

La Federación Vizcaína de Baloncesto al comienzo de cada competición remite a todos los Clubes una relación detallada de los datos de los equipos, terrenos de juego, horarios de los encuentros, etc. para cada competición y grupo o subgrupo.

En caso de producirse cualquier variación sobre la inscripción inicial, deberá comunicarse antes del día 20 de cada mes, siendo recogida dicha variación en la programación mensual que se remitirá a cada Club, la no recepción o desconocimiento de estas variaciones, no supondrá la nueva programación por parte del Comité de Competición del partido que no se celebre, por lo que todos los Clubes deberán asegurarse de su recepción antes de finalizar cada mes, o consultarlo en el tablón de anuncios de la Federación así como en su página web oficial (<http://www.bizkaiabasket.com>).

Artículo 220

A todos los efectos se considerará la fecha señalada en el calendario como la oficial de competición.

Si por alguna causa de fuerza mayor, a criterio de la Federación Vizcaína de Baloncesto, el partido no pudiese celebrarse en la fecha

eskatutako aldaketa baimendu ahal izango da, eta partida hasierako egiunetik hasita ondorengo 15 eguneko epearen barruan jokatu da, kontuan hartuta fase bakoitza amaitzeko egunak zeintzuk diren (lehiaketa-oinarrietan daude jasota egun horiek).

señalada en el calendario, se podrá autorizar el cambio solicitado, jugándose el mismo como máximo dentro de los 15 días siguientes a la fecha programada inicialmente, teniendo en cuenta las fechas de finalización de cada fase, las cuales estarán recogidas en las Bases de Competición.

Lehiaketa bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezartzen ez badira, honakoak izango dira, oro har, partidak hasteko orduak:

Salvo que se determinen en las Bases Específicas de cada competición los horarios de juego, con carácter general, las horas de inicio de los encuentros serán los siguientes:

Larunbatetan: 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.
 Igandeetan: 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.
 Jaiegunetan eta jardunaldi bikoitzetan: 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.
 Astegunetan: 19:30etik 20:30era.

Sábados: 9,00 a 13,00 y 16:00 a 20:30 Horas.
 Domingos: 9:00 a 13:00 y 16:00 a 20.30 Horas.
 Festivos y dobles jornadas: 9:00 a 13:00 y 16:00 a 20.30 Horas.
 Laborables: 19:30 a 20.30 Horas.

Bizkaiko Federazioak partidak egunez eta orduz aldatu ahal izango ditu bere lurralde-lehiaketetan.

Las Federaciones Vizcaína podrá modificar la fecha y horario de los encuentros en sus competiciones provinciales.

Inskripzio-orrian partidaren ordutegia adierazten ez duten klubaren kasuan, federazioak ezarrita, igande edo jaieguneko 12:00ak izango dira partida hasteko ordua; edo jaieguna ez bada, 19:30.

A los Clubes que no hagan constar el horario de sus partidos en la hoja de inscripción les serán señaladas de oficio las 12:00 horas del domingo o festivo, o las 19:30 horas de no ser festivo.

Salbuespen gisa, eta ezinbesteko arrazoiengatik, Bizkaiko Saskibaloia Federazioak onartu eman ahal izango du epe kanpo egindako eskaera. Horretarako, ezinbestekoa da Bizkaiko Saskibaloia Federazioan aurkako taldearen adostasuna jaso izana.

Excepcionalmente, y por causas de fuerza mayor, la Federación Vizcaína de Baloncesto, podrá autorizar alguna solicitud fuera de los plazos señalados, siendo requisito indispensable para su consideración el haber recibido en la Federación Vizcaína de Baloncesto en el momento de la petición la conformidad del equipo contrario.

Partida telebistaz ematen bada, automatikoki onartuko da egunez edo orduz aldatzea.

En aquellos casos en que la televisión retransmitiera el encuentro se admitirá automáticamente la modificación de fecha u horario.

Eskaera batean kontzeptu bat baino gehiago sartzen badira zenbateko bakarra kobratuko da, kontzeptu bakar baten aldaketa balitz bezala.

Cuando una petición incluya más de un concepto sólo se cobrará un importe, al igual que si se tratase de una modificación por uno solo de ellos.

PLAZO	CONFORMIDAD CONTRARIO	CUOTA A PAGAR
MODIFICACION DE FECHA	con 10 ó más días	necesaria
	entre 9 y 7 días	necesaria
	entre 6 y 5 días	necesaria
MODIFICACION DE HORARIO	con 10 ó más días	necesaria
	entre 9 y 7 días	necesaria
	entre 6 y 5 días	necesaria
MODIFICACION DE CAMPO	con 10 ó más días	necesaria
	entre 9 y 7 días	necesaria
	entre 6 y 5 das	necesaria

	EPEA	AURKAKOAREN ADOSTASUNA	ORDAINDU BEHARREKO KUOTA
EGUNA ALDATZEA	10 egun edo gehiago lehenago	ezinbestekoa	
	9-7 egun lehenago	ezinbestekoa	
	6-5 egun lehenago	ezinbestekoa	
ORDUA ALDATZEA	10 egun edo gehiago lehenago	ezinbestekoa	
	9-7 egun lehenago	ezinbestekoa	
	6-5 egun lehenago	ezinbestekoa	
JOKALEKUA ALDATZEA	10 egun edo gehiago lehenago	ezinbestekoa	
	9-7 egun lehenago	ezinbestekoa	
	6-5 egun lehenago	ezinbestekoa	

Laugarren atala: JOKATZEKO UNIFORMEAK ETA UNIFORMEETAKO PUBLIZITATEA

Sección Cuarta: UNIFORMES DE JUEGO Y SU PUBLICIDAD

221. artikulua

Artículo 221

Jokatzekeo uniformeak marrak eduki ahal izango ditu lurralde mailako lehiaketa ofizialetan. Arbitroen ustez, talde bien uniformeen koloreengatik nahastea gerta badaiteke, kanpoko taldeak elastikoz aldatu behar du; horretarako, ordezko uniforme eraman behar du kanpora joaten denean.

En las competiciones oficiales de ámbito territorial podrán ser utilizadas las camisetas con rayas en el uniforme de juego. Caso de que, a juicio de los árbitros, el color de los uniformes de juego de ambos equipos pueda prestarse a confusión, habrá de cambiar de camiseta el equipo visitante, a cuyo efecto ha de desplazarse con el oportuno repuesto.

Bizkaiko lurraldeko lehiaketetan, erabili ahal izango dira hasiera-zenbakia 0 eta 00 eta 99 bitartekoak.

Partida bat telebistaz ematen denean, telebistako teknikariak erabakiko du taldeen elastikoen koloreengatik nahastea ekar dezakeen. Aurrekoa gerta ez dadin, talde biek gutxienez kolore argiko elastiko-sorta bat eta kolore iluneko elastiko-sorta bat eduki behar dituzte.

222. artikulua

Lehiaketa bat kontzentrazioan egiten denean, elastikoz aldatu behar bada, programa ofizialean bigarren lekuan agertzen dena izango da kanpoko taldea.

223. artikulua

Jokatzeke uniformeetan jokalariek erakusten duten publizitatean, merkataritza-markaren ikurra edo sinboloa eta, haren pean, marka izendatzen duten hitzak edo siglak baino ezin dira agertu. Horrez gain, lehiaketa-oinarrietan zehaztuko dira publizitate horren erabilera eta neurria. Lehiaketa-oinarrietan halakorik agertu ezik, FIBAren araudia beteko da.

Publizitatean, ezin da ideia politiko edo erlijiosoei buruzko aipamenik egin. Publizitatea ezin da legearen, moralaren, ohitura onen edo ordena publikoaren kontrakoa izan, eta ez ditu, inola ere, klubaren koloreak edo ikurrak aldatuko.

En las competiciones oficiales de ámbito territorial vizcaíno, se podrán utilizar los números dorsales del 0 y 00 y del 1 al 99.

Cuando haya de televisarse un encuentro será el técnico de la televisión correspondiente quien determinará si los colores de las camisetas de los equipos pueden ser confundidos. Para corregir esta posibilidad, ambos equipos han de contar, al menos, con un juego de camisetas de color claro y otro de color oscuro.

Artículo 222

Cuando una competición se celebre en concentración. Se considerará como visitante, a los efectos del cambio de camiseta el que figure en segundo lugar en el programa oficial.

Artículo 223

La publicidad que exhiban los jugadores/as en los uniformes de juego, sólo podrá consistir en un emblema o símbolo de marca comercial y bajo el mismo, palabras o siglas alusivas aquella, siendo definido su uso y su medida en las bases de competiciones. En aquellas en que no figurase se atenderán a la normativa FIBA.

La publicidad no podrá hacer referencia a ideas políticas o religiosas, ni ser contraria a la ley, a la moral, a las buenas costumbres o al orden público y en ningún caso alterará los colores o emblemas propios del club.

ZORTZIGARREN TITULUA

BATZARRAK EGITEKO PROZEDURAK

LEHENENGO KAPITULUA: PROZEDURA ARRUNTA

224. artikulua

Dagozkien estatutuetan ezarritako prozeduraren arabera eta aztergaien zerrenda ezarrita egingo da batzarretarako deialdia.

TITULO OCTAVO

PROCEDIMIENTOS PARA ASAMBLEAS

CAPITULO PRIMERO: PROCEDIMIENTO ORDINARIO

Artículo 224

Las Asambleas se convocarán con arreglo al procedimiento establecido en los Estatutos correspondientes y estableciendo un orden del día.

225. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak ezarriko du bilkuren gai-zerrenda.

226. artikulua

Kide guztiek edukiko dute hitz egin eta botoa emateko eskubidea batzarrean aztertzeko diren gaiak eztabaidatzean.

Honakoek, berriz, zuzenean ukitzen dituzten gaietan, hitz egiteko eskubidea edukiko dute, baina ez botoa emateko: batzarreko kide ez direnek, azken agintalditik irteerako presidentek eta Zuzendaritza Batzordeko kideek.

227. artikulua

Saio guztietan, lehenengo, bertaratutako kideak zenbatuko dira eta, ondoren, presidentek ebatziko du kide horiek egindako erreklamazioak edo inpugnazioak tratatu behar diren ala ez.

228. artikulua

Presidentearen esku dago batzarrak hasi, bertan behera utzi eta amaitzea. Eztabaidak zuzenduko ditu; horretarako, noiz hitz egin behar den arautuko du, eta proposamenak eta hartu beharreko neurriak botaziopean jarriko ditu. Gerta daitezkeen ordena- eta prozedura-arazoak ebatziko ditu. Gai batek hala eskatzen badu, hitz egiteko txandak luzatu edo mugatu ahal izango ditu. Eskumena du kideak ohartarazteko edo, behar denean, kideei hitza kentzeko baldin eta presidenteari edo asanbladako beste kideren bati begirunerik gabe hitz egiten badiote.

229. artikulua

Presidentek antolatuko du eztabaida, egiteko prozedura ezarri. Horretarako, ataletan banatu ahal izango ditu gaiak, zein bere aldetik eztabaidatzeko.

230. artikulua

Dagokion gaiaren gaineko azalpena eginez hasiko dira eztabaidak. Presidentek berak edo hark aukeratutako pertsonak emango du

Artículo 225

El orden del día de las sesiones se establecerá por la Junta Directiva.

Artículo 226

Cada miembro tendrá voz y voto para debatir los asuntos que sean sometidos a la consideración de la Asamblea.

Podrán intervenir en aquellos temas que les afecten directamente con voz, pero sin voto, si no son miembros de la Asamblea, el Presidente/a saliente del último mandato y los miembros de la Junta Directiva.

Artículo 227

En todas las sesiones se procederá, en primer lugar, al recuento de miembros presentes, resolviendo el Presidente/a las reclamaciones o impugnaciones que puedan formular los mismos en cuanto a su inclusión o exclusión.

Artículo 228

El Presidente/a abrirá, suspenderá, en su caso, y cerrará las sesiones de la Asamblea. Conducirá los debates regulando el uso de la palabra y sometiendo a votación las proposiciones o medidas a adoptar. Resolverá las cuestiones de orden y procedimiento que pudieran plantearse. Podrá ampliar o limitar las intervenciones cuando así lo exija la materia o el tiempo, y está facultado para amonestar e, incluso, retirar la palabra a los miembros que se produzcan de forma irrespetuosa con la presidencia o con otros miembros de la misma.

Artículo 229

El Presidente/a ordenará el debate estableciendo el modo de efectuarlo. A tal fin, podrá dividir cada ponencia en diversas secciones, para proceder a su debate por separado.

Artículo 230

Los debates se iniciarán con una exposición relativa a la ponencia que corresponda, a cargo del Presidente/a o de la persona a quien este designe.

azalpen hori.

231. artikulua

Zuzenketarako aurkeztu diren gaiak eta manuak eta presidenteak edo batzarraren gehiengoak egokitzat jotakoak baino ezin dira eztabaidatu era partikularrean. Zuzendu ez diren gaiak edo manuak onartutzat joko dira, salbu eta beste gai edo manuei buruz onartutako beste zuzenketa batzuen eraginpean badaude.

232. artikulua

Batzarreko kide guztiek aurkeztu ahal izango dituzte ponentzien zuzenketak, eta dagokion organoak aztertuko ditu.

Bizkaiko Saskibaloï Federazioak dagokion bilera hasi baino 10 egun lehenago jaso behar ditu zuzenketak.

Zuzendaritza Batzordeari entzun ondoren, presidenteak, salbuespenez, epez kanpo aurkeztutako zuzenketak onartu ahal izango ditu.

233. artikulua

Aurkeztutako zuzenketen edukia eta ponentziaren testua azaltzeko zuzenketa transakzionalak baino ezin dira aurkeztu bileran. Dagokion testua edo manua bozkatu aurretik aurkeztu behar dira zuzenketa transakzionalak, idatziz. Presidenteari dagokio zuzenketa horiek sailkatu eta onartzea.

234. artikulua

Aldeko txanda bi eta kontrako beste bi egongo dira zuzenketa bakoitzeko. Gehienez ere hiru minutu iraungo du txanda bakoitzak. Ildo bereko zuzenketa batzuk aurkeztuz gero, presidenteak txandak banatu ahal izango ditu eskatzaileen artean.

235. artikulua

Gai edo manu baten zuzenketa guztien gaineko eztabaida amaituta, une horretan presidenteak proposatzen duen testua bozkatuko da. Testu hori onartzen ez bada, aurkeztutako zuzenketak bozkatuko dira banan-banan eta eztabaidatu diren

Artículo 231

Sólo serán objeto de debate particularizado aquellos temas o preceptos que hayan sido objeto de enmienda y los que el/la Presidente/a o la mayoría de la Asamblea consideren preciso. Los temas o preceptos no enmendados se entenderán aprobados, salvo que resulten afectados por enmiendas aceptadas en relación con otros temas o preceptos.

Artículo 232

Todo miembro de la Asamblea podrá presentar enmiendas a las ponencias que sean sometidas a la consideración del órgano correspondiente. Las enmiendas deberán ser recibidas en la Federación Vizcaína de Baloncesto con 10 días de antelación a la celebración de la sesión correspondiente.

El Presidente oída la Junta Directiva, podrá admitir con carácter excepcional enmiendas presentadas fuera de plazo.

Artículo 233

Durante la sesión sólo podrán presentarse enmiendas transaccionales que pretendan aproximar el contenido de las enmiendas presentadas y el texto de la ponencia. Las enmiendas transaccionales deberán presentarse por escrito antes de iniciarse la votación del texto o precepto correspondiente. La clasificación, y admisión de tales enmiendas corresponderá al Presidente/a.

Artículo 234

Por cada enmienda podrán producirse dos turnos a favor y dos en contra por tiempo no superior a tres minutos cada uno. En caso de enmiendas que se formulen en el mismo sentido, el/la Presidente/a podrá dividir los turnos a favor entre los demandantes.

Artículo 235

Finalizado el debate de todas las enmiendas a un tema o precepto, se someterá a votación el texto que, en ese momento, proponga el/la Presidente/a. Si fuera rechazado, se someterán a votación, por el orden de su debate, las enmiendas presentadas hasta que alguna resulte aprobada.

hurrenkera, harik eta baten bat onartu arte.

236. artikulua

Zuzenketak onartzeko gehiengo soila behar da, salbu eta estatutueta bestela esaten bada.

237. artikulua

Bozketen sistema eskua jasotzea izango da, salbu eta estatutueta kasu berezietarako bestela ezartzen bada, edo presidenteak edo bertaratutakoen heren batek gai jakin baterako beste sistema bat erabakitzen badute.

BIGARREN KAPITULUA: PROZEDURA BEREZIAK

**Lehenengo Atala:
HAUTESKUNDEETARAKO PROZEDURAK**

238. artikulua

Honako hauetan xedatutakoak arautuko du Bizkaiko Saskibaloï Federazioaren hauteskunde-araubidea: 16/2006 Dekretuan, hura garatzeko ematen diren xedapenetan, estatutueta eta Batzar Nagusiak onartu beharreko hauteskunde-araudian.

239. artikulua

Federazioan Hauteskunde Batzorde bat egongo da. Hiru kide edukiko ditu batzorde horrek, eta hauteskunde-prozesua bultzatu eta zuzen garatzeaz arduratuko da.

Hauteskunde batzorde batek 4 urte ditu bere eskumenak erabiltzeko. Hala ere, Batzar Nagusiak baliogabetu ahal izango du eta lehenago beste bat izendatu epe hori amaitu aurretik.

240. artikulua

Bizkaiko Federazioaren estatutueta ezarritako eran aukeratuko dira Hauteskunde Batzordeko kideak eta kide horiek ordezkokoak.

Kiderik zaharrena eta gazteena izango dira, hurrenez hurren, Hauteskunde Batzordeko presidentea eta idazkaria.

Hauteskundeetan hautagai aurkezten direnak ezin izango dira inola ere Hauteskunde

Artículo 236

La aprobación de las enmiendas requerirá la mayoría simple, salvo que los Estatutos dispongan otra cosa.

Artículo 237

Las votaciones se efectuarán a mano alzada, salvo que lo dispuesto en los Estatutos para casos específicos dispongan otra cosa, o que el presidente/a o 1/3 de los asistentes decidieran otra fórmula para un tema concreto.

CAPITULO SEGUNDO: PROCEDIMIENTOS ESPECIALES

Sección Primera: PROCEDIMIENTOS ELECTORALES

Artículo 238

El régimen electoral de la Federación Vizcaína de Baloncesto se regirá por lo dispuesto en el Decreto 16/2006, por las disposiciones que se dicten en desarrollo del mismo, por los presentes Estatutos y por el Reglamento Electoral que deberá aprobar la Asamblea General.

Artículo 239

En la Federación existirá una Junta Electoral, compuesta por tres miembros, encargada de impulsar el proceso electoral y velar por su correcto desarrollo.

El ejercicio de las funciones de la Junta Electoral tendrá una duración de 4 años, sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituir la y nombrar otra antes de la conclusión de dicho periodo.

Artículo 240

Los miembros de la Junta Electoral, así como los suplentes serán elegidos en la forma determinada en los Estatutos de la Federación Vizcaína.

Actuarán de Presidente y Secretario de la Junta Electoral el de mayor y menor edad respectivamente.

En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral los que fueran a presentarse como

Batzordeko kide izan; izendatutako hauteskunde batzordeko kideren bat hautagai bada, kide izateari utzi beharko dio eta izendatutako ordezkioak hartu beharko du haren lekua.

241. artikulua

Hauteskunde Batzordeak, betiere, honako eginkizun hauek izango ditu:

a.- Hautesleen errolda eta hauteskudeen egutegia onartzea.

b.- Aurkeztutako hautagai-zerrendak aldarrikatu eta argitaratzea.

c.- Hauteskunde-mahaiko kideak izendatzea.

d.- Hautatutakoak aldarrikatzea.

e.- Aurkezten diren aurka egiteak, erreklamazioak eta eskaerak ebaztea, baita hauteskunde-mahaiaren erabakien kontrako errekurtsioak ere.

f.- Hauteskudeen eta emaitzen zuzeneko eragina duen edozein arazo ebaztea.

Jurisdikzio arruntean egin ahal izango da Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka.

242. artikulua

Batzar Orokorreko kideen hautatze prozesurako, Bizkaiko Saskibaloï Federazioak hauteskunde-mahaia izendatuko du, dagozkion funtzioak bete ditzan.

243. artikulua

Hauteskunde-araudian berariaz ezarritako hauteskunde-arauei arabera egingo dira Batzar Nagusiko presidentea kideak hautatzeko bilerak.

Bigarren atala: ZENTSURA MOZIOAREN PROZEDURA

244. artikulua

Zentsura-mozioa izenpetzen duteneko baten azalpenarekin hasiko da zentsura-mozio hori

candidatos; si esta condición recayese en alguno de los componentes de la Junta Electoral nombrada, deberán cesar y ocupar su lugar el suplente designado.

Artículo 241

La junta Electoral tendrá encomendadas en todo caso las siguientes funciones:

a.- Aprobar el censo de electores y el calendario electoral.

b.- Proclamar y publicar las candidaturas presentadas.

c.- Designar la mesa electoral.

d.- Proclamar los candidatos electos.

e.- Resolver las impugnaciones, reclamaciones, peticiones que se presenten y los recursos que se interpongan contra las decisiones de la mesa electoral

f.- Cualquier cuestión que afecte directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados.

Las decisiones que adopte la Junta Electoral serán impugnables ante la jurisdicción ordinaria.

Artículo 242

En la elección de los miembros de la Asamblea General de la Federación Vizcaína de Baloncesto la Junta Electoral designará la mesa electoral, con el fin de desarrollar sus funciones.

Artículo 243

Las sesiones en las que se proceda a la elección del Presidente o Presidenta y de los miembros de la Asamblea General se regirán por las Normas Electorales específicas establecidas en el Reglamento Electoral.

Sección Segunda: PROCEDIMIENTO EN LA MOCIÓN DE CENSURA

Artículo 244

La sesión extraordinaria de la Asamblea que conozca de una moción de censura se iniciará

tratatzeko aparteko batzarra. Gehienez ere 20 minutu iraungo du azalpen horrek. Ondoren, federazioaren presidenteak izango du hitz egiteko eskubidea. Gehienez ere 20 minutuz erabili ahal izango du eskubide hori. Gero, parte-hartzaile biek edukiko dute elkarri erantzuteko txanda; txanda horietako bakoitzak gehienez ere 5 minutu hartuko ditu.

Ondoren, zentsura-mozioan proposatutako hautagaiak parte hartu ahal izango du; honek ere gehienez ere 20 minutu izango ditu. Ondoren, presidenteak gehienez ere 20 minutu izango ditu erantzuteko. Gero, parte-hartzaile biek edukiko dute elkarri erantzuteko txanda; txanda horietako bakoitzak gehienez ere 5 minutu hartuko ditu.

245. artikulua

Horiez gain, beste mozio batzuk ere aurkeztu badira, eztabaidatu egingo dira, aurreko artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki eta mozioak aurkeztu diren hurrenkeran.

246. artikulua

Behin eztabaida amaituta, mozioak bozkatuko dira, aurkeztu diren hurrenkeraren arabera. Bozketa isilpekoa izango da, kideei izenez deituta eta boto-txartelak erabilita egingo da. Txartelean bai edo ez jarriko da, mozioa onetsi edo ezetsi nahi den.

Hirugarren atala: ESTATUTUAK ERREFORMATZEKO PROZEDURA

247. artikulua

Estatutuen erreformari dagokionez, titulu honen lehenengo kapituluan xedatutakoa aplikatuko da, Bizkaiko Federazioaren estatutuetan ezarritako zehaztasunak bakarrik kontuan hartuta.

Laugarren atala: FEDERAZIOA IRAUNGI ETA DESEGITEKO PROZEDURA

248. artikulua

Federazioa iraungi edo desegitea eztabaidatzeko aparteko batzarra hasteko presidenteak zioen azalpena egingo du.

Ondoren, nahi duten asanbladako kide

con una exposición de la misma por uno de sus signatarios, por tiempo máximo de 20 minutos. El Presidente o Presidenta de la Federación podrá hacer uso de la palabra a continuación por un tiempo máximo de 20 minutos. Ambos intervinientes podrán hacer uso de la palabra en sendos turnos de réplica y duplica por tiempo no superior a 5 minutos cada uno.

A continuación podrá intervenir el candidato incluido en la moción de censura por tiempo no superior a 20 minutos. El Presidente o Presidenta podrá contestar en un tiempo máximo de 20 minutos. Ambos intervinientes podrán hacer uso de los turnos de réplica y duplica por tiempo no superior a 5 minutos cada uno.

Artículo 245

En caso de que se hayan presentado mociones alternativas, se procederá a su debate, siguiendo los criterios establecidos en el artículo anterior y por su orden de presentación.

Artículo 246

Finalizado el debate, la moción o mociones serán sometidas a votación por el orden de presentación. La votación será secreta, se efectuará con llamamiento nominal y por papeletas en las que se consignará sí o no, según se apruebe o rechace la moción.

Sección Tercera: PROCEDIMIENTO PARA LA REFORMA DE ESTATUTOS

Artículo 247

Será de aplicación a la reforma de Estatutos lo dispuesto en el Capítulo Primero de este Título, sin más especificaciones que las previstas en los Estatutos de la Federación Vizcaína.

Sección Cuarta: PROCEDIMIENTO PARA LA EXTINCIÓN Y DISOLUCIÓN DE LA FEDERACIÓN

Artículo 248

La sesión extraordinaria de la Asamblea que someta a debate la extinción y disolución de la Federación se iniciará con una exposición de motivos por el Presidente o Presidenta.

Acto seguido podrán intervenir cuantos

guztiak har dezakete parte, baina gehienez ere 5 minutuz.

miembros de la misma lo soliciten, por tiempo no superior a 5 minutos cada uno.

Batzarrak batzorde likidatzaile bat izendatuko du, presidentek; Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzarekin ados, proposatutako kideek osatuko dute asanblada.

La Asamblea procederá a nombrar una comisión liquidadora, cuyos miembros serán propuestos por el Presidente de acuerdo con la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.

Iraungitzea, borondatezkoa denean, batzarrak bozkatuko du. Isilpepeko bozketa izango da.

Cuando la extinción sea voluntaria se someterá a votación de la Asamblea que tendrá carácter secreto.

BEDERATZIGARREN TITULUA

TITULO NOVENO

DOPIN KONTROLA

CONTROL DE DOPAJE

249. artikulua

Artículo 249

Jokalarien ahalmen fisikoa modu artifizialean areagotzeko edo kirol-lehiaketan emaitzak aldatzeko edonolako substantziak erabili edo erabiltzeko banatzea eta horretarako metodoak erabiltzea da dopatzea.

El dopaje es el uso o administración de cualquier tipo de sustancias o el empleo y aplicación de métodos destinados a aumentar artificialmente las capacidades físicas de los jugadores o a modificar los resultados de las competiciones deportivas.

250. artikulua

Artículo 250

Estatu mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko lizentzia duten jokalaria guztiak daude behartuta dopin kontrolak egitera.

Todos los/las jugadores/as con licencia para participar en competiciones oficiales de ámbito estatal tendrán obligación de someterse a los controles de dopaje.

Dopin kontrolerako araudian ezarritakoaren arabera egingo dira kontrolak.

Los mismos se regirán por lo establecido en el reglamento de control de dopaje.

HAMARGARREN TITULUA

TITULO DECIMO

GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEKO ARAUDIA

REGLAMENTO DE RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS

251. artikulua

Artículo 251

1.- Araudi honen helburua honako hau da: gatazkak judizioz kanpo ebazteko Bizkaiko Saskibaloï Federazioaren estatutuetan aurreikusitakoa garatzea.

1.- El presente Reglamento tiene por objeto desarrollar lo previsto en los Estatutos de la Federación Vizcaína de Baloncesto en materia de resolución extrajudicial de conflictos.

Honakoetan xedatutakoak arautuko du gatazkak judizioz kanpo ebaztea: oro har, tartekaritza eta adiskidetzea arautzeko indarreko legeria publiko berezian, eta tartekaritzari nahiz kirol eremuan gatazkak epaitegitik kanpo ebazteko diren beste formula batzuei buruzko legerian.

La resolución extrajudicial de conflictos queda sujeta a lo dispuesto en la legislación pública específica y vigente reguladora del arbitraje y conciliación en general y del arbitraje y otras fórmulas de resolución extrajudicial de conflictos en el ámbito del deporte.

Araudi honek, testuinguru juridiko orokorra eta Bizkaiko Saskibaloï Federazioa osatuz,

El presente Reglamento regula, como complemento del marco jurídico general y de

honako hau arautzen du: federazio honen eta bere federatu edo kideen artean, edo federatu edo kide horien artean, edo, hirugarren batek araudi honi berariaz men eginez gero, hirugarren horren eta federazioaren edo federatu edo kide baten artean gerta daitezkeen gatazka edo tirabiren judizioz kanpoko tartekaritzaren edo ebazpenaren erregimena.

2.- Salbu eta administrazioak Bizkaiko Saskibaloia Federazioaren esku utzitako eginkizun publikoak erabiltzearekin zerikusia duten gaiak edota berariaz eta legez tartekaritzaren mende egotetik kanpo utzitako gaiak, gainerako guztiak ebatzi ahal izango dira bide hau erabiliz.

3.- Bizkaiko Saskibaloia Federazioa bere borondatez geratzen da araudi honetan arautzen den tartekaritzaren mende eta, ondorioz, Kirol Tartekaritzarako Euskal Auzitegiaren mende.

Federazioaren lizentzia duten titularrak euren borondatez gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mende geratzen direla joko da, baldin eta lizentzia lehenengoz eman zaienetik edo araudi hau argitaratzen denetik hilabeteko epean ez badiote berariaz uko egin sistema horri.

Bizkaiko Saskibaloia Federazioko kide izan eta federazioaren lizentziarik ez duten gainerako pertsonak (Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordeko kideak, zuzendariak eta teknikoak, etab.) ere euren borondatez gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mende egongo direla joko da, baldin eta egoera hori lortzen duten unetik edo araudi hau argitaratzen denetik hilabeteko epean ez badiote berariaz uko egin sistema horri.

Bizkaiko Saskibaloia Federazioan inskribaturiko klubak eta elkarteak euren borondatez gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mende geratzen direla joko da, baldin eta federazioan inskribatzen direnetik edo araudi hau argitaratzen denetik hilabeteko epean ez badiote berariaz uko egin sistema horri.

4.- Uko egitea idatziz egingo da, eta bertan

los Estatutos de la Federación Vizcaína de Baloncesto el concreto régimen de arbitraje o resolución extrajudicial de los conflictos o diferencias que puedan plantearse entre esta Federación y sus federados o miembros, o entre éstos y, en caso de expreso sometimiento por parte de un tercero, entre éste y la Federación, federado o miembro.

2.- Salvo las cuestiones relacionadas con el ejercicio de funciones públicas delegadas por la Administración a la Federación Vizcaína de Baloncesto y las materias legal y expresamente excluidas de sometimiento a arbitraje, todas las demás cuestiones podrán ser objeto de resolución por esta vía.

3.- La Federación Vizcaína de Baloncesto queda sometida voluntariamente al arbitraje que se regula en el presente reglamento y, en consecuencia, al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo y sus normas.

Los titulares de licencia federativa se presumirá que quedan sometidos voluntariamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos si en el plazo de un mes, a contar desde la fecha en que se le expida la licencia por primera vez, o una vez transcurra el plazo de un mes desde la publicación del presente reglamento, no han renunciado expresamente al mismo.

Los restantes miembros de la Federación Vizcaína de Baloncesto que no dispongan necesariamente de licencia federativa (Presidente/a y miembros de la Junta Directiva; directores/as y técnicos/as; etc.), se presumirá que quedan sometidos voluntariamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos si en el plazo de un mes, a contar desde la fecha en que adquieran tal condición, o una vez transcurra el plazo de un mes desde la publicación del presente reglamento, no han renunciado expresamente al mismo.

Los clubes y agrupaciones deportivas inscritas en la Federación Vasca de Baloncesto se presumirá que quedan sometidos voluntariamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos si en el plazo de un mes, a contar desde la fecha en que se inscriban en la federación, o una vez transcurra el plazo de un mes desde la publicación del presente reglamento, no han renunciado expresamente al mismo.

4.- La renuncia se efectuará por escrito

afiliazio datuak (izen-abizenak edo sozietatearen izena, helbidea eta IFZ) baino ez dira adieraziko eta lizentzia-zenbakia (hala dagokionean).

Bizkaiko Saskibaloï Federazioak jasoko du uko egitea, horretarako berariaz prestatuko den liburu batean.

5.- Bizkaiko Saskibaloï Federazioak bakarrik jakinaraziko die hirugarrenei uko egitea baldin eta oro har ezeztatu ez bada eta informazioaren eskatzaileak adierazten badu lizentziaren titularrarekin edo Bizkaiko Saskibaloï Federazioko kideren batekin auzi edo gatazka bat duela eta araudi honetan arautzen den gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mende jartzeko asmoa duela.

Interesdunaren informazio-eskaera eta federazioaren jakinarazpena, biak, idatziz egingo dira.

Eskaera jasotzen denetik 7 egun baliouduneko epea du Bizkaiko Saskibaloï Federazioak jakinarazpena egiteko.

6.- Hasieran tartekaritzari berariaz uko egin arren gero tartekaritza hori, oro har edo auzi edo gatazka jakin bat ebazteko, onartzen duten federatuek edo Bizkaiko Saskibaloï Federazioko kideek men egiten diotela adierazteko konpromiso bat izenpetu beharko dute, araudi honetako eranskinean adierazten denaren arabera.

Berariazko men egite hori idatzi egin behar da, eta izenpetu behar da.

7.- Men egite orokorra denean, edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

Kasu horretan, Bizkaiko Saskibaloï Federazioak baliogabetuko du liburuan hasieran eginiko oharriari, araudi honetan ezarritakoarekin bat.

8.- Auzi edo gatazka jakin bat ebazteko men eginez gero, interesdunak Bizkaiko Saskibaloï Federazioari edo Kirol Tartekaritzarako Euskal Auzitegiari jakinaraziko dio. Horretarako, hamabost egun izango ditu hirugarren interesdunak edo, interesdun

indicando, exclusivamente, sus datos de filiación (nombre y apellidos o razón social, domicilio y NIF) y número de licencia, cuando proceda.

La renuncia será anotada por la Federación Vizcaína de Baloncesto en un libro que, a estos exclusivos efectos, habilitará.

5.- La Federación Vizcaína de Baloncesto sólo comunicará a terceros el hecho de la renuncia siempre que la misma no se hubiera revocado con carácter general y cuando el peticionario de la información indique que mantiene una diferencia o conflicto con el titular de la licencia o miembro de la Federación Vizcaína de Baloncesto y que es su intención someterse al sistema de resolución extrajudicial de conflictos regulado en el presente reglamento.

Tanto la solicitud de información por el interesado como la comunicación por la Federación se efectuarán por escrito.

La comunicación de la Federación Vizcaína de Baloncesto deberá realizarse en el plazo máximo de 7 días hábiles desde la recepción de la solicitud.

6.- Los federados y/o miembros de la Federación Vizcaína de Baloncesto que, después de una inicial renuncia expresa al sometimiento a arbitraje, aceptaren el mismo, bien con carácter general, bien para la resolución de un conflicto o diferencia concreto, deberán suscribir un compromiso de sometimiento en los términos que se indican en anexo al presente Reglamento.

Este sometimiento expreso deberá efectuarse por escrito y deberá estar firmado.

7.- Cuando se tratare de un sometimiento en general podrá presentarse en cualquier momento.

En este caso se procederá por la Federación Vizcaína de Baloncesto a dar de baja la anotación que efectuó inicialmente, en conformidad con lo previsto en el presente reglamento.

8.- Cuando se tratare de un sometimiento a un conflicto o diferencia en concreto el interesado lo comunicará bien a la Federación Vizcaína de Baloncesto, bien al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo, dentro de los quince días siguientes a aquél en que haya sido requerido para ello

horrek eskatuta, Bizkaiko Saskibaloia Federazioak men egitea eskatzen dion egunaren biharamunetik hasita.

por el tercero interesado, o por la Federación Vizcaína de Baloncesto a instancia del tercero.

9.- Euskal Kirol Federazioen Batasunak osatuta dagoen Kirol Tartekaritzarako Euskal Auzitegia da tartekaritzaren eta, oro har, gatazkak judizioz kanpo ebaztearen ardura duen organoa.

9.- El órgano al que se encomienda el arbitraje y, en general, la resolución extrajudicial de conflictos, es el Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo constituido por la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

10.- Kirol Tartekaritzarako Euskal Auzitegiak berak ezarritakoa da tartekaritza eta, hala behar denean, gatazkak judizioz kanpo ebazteko beste edozein sistema aplikatzeko prozedura.

10.- El procedimiento de aplicación del arbitraje, y, en su caso, de cualquier otro sistema de resolución extrajudicial de conflictos previsto en sus normas procedimentales, es el previsto por el propio Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo.

11.- Kirol Tartekaritzarako Euskal Auzitegiaren Kirol Tartekaritzaren Kodean berariaz aurreikusitako eran betearaziko dira, borondatez zein ezinbestez, auzitegi horren laudoak.

11.- La ejecución, voluntario o forzosa, de los laudos del Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo se llevará a término en la forma prevista expresamente en el Código de Arbitraje Deportivo del propio Tribunal.

ERANSKINA

1.- Federatuentzako eredia.

..... jaunak / andreak,
..... helbidea duenak, eta
Euskal Saskibalo Federazioan
lizentzia-zenbakia duenak, honakoa
adierazten du: idazki honen bidez,
federazioak ezarri eta arautu duen gatazkako
judizioz kanpo ebazteko sistemari berariaz
men egiten diola, idazki hau sinatzen
duenaren eta federazioaren artean edo idazki
hau sinatzen duenaren eta beste federatu edo
kideen artean sortzen diren auzi edo gatazkak
ebazteko.

.....n, 200.....(e)ko
.....aren(e)an
Sin.

2.- Kideentzako eredia.

..... jaunak / andreak,
..... helbidea duenak, eta
Euskal Saskibalo Federazioako kide denak,
honakoa adierazten du: idazki honen bidez,
federazioak ezarri eta arautu duen gatazkako
judizioz kanpo ebazteko sistemari berariaz
men egiten diola, idazki hau sinatzen
duenaren eta federazioaren artean edo idazki
hau sinatzen duenaren eta beste federatu edo
kideen artean sortzen diren auzi edo gatazkak
ebazteko.

.....n, 200.....(e)ko
.....aren(e)an
Sin.

3.- Kirol klub edo elkarteentzako eredia.

..... jaunak / andreak,
..... NAN zenbakia duenak,
..... klub edo elkartearen (IFZ:
.....; Euskal Saskibalo
Federazioaren lizentzia-zenbakia:)
izenean edo ordezkari gisa arituz, honakoa
adierazten du: idazki honen bidez,
federazioak ezarri eta arautu duen gatazkako
judizioz kanpo ebazteko sistemari berariaz
men egiten diola, idazki hau sinatzen
duenaren eta federazioaren artean edo idazki
hau sinatzen duenaren eta beste federatu edo
kideen artean sortzen diren auzi edo gatazkak
ebazteko.

.....n, 200.....(e)ko
.....aren(e)an
Sin.

ANEXO

1:- Modelo federado.

Don/Doña ..., con DNI nº ..., con domicilio en ... y licencia de la Federación Vasca de Baloncesto número ..., por medio del presente escrito manifiesta que se somete expresamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos establecido y regulado por la Federación, para la resolución de aquellas diferencias o conflictos que pueda surgir entre la Federación y quien suscribe o entre otros federados o miembros y quien suscribe,

En ..., a ...
Fdo.

2.- Modelo miembro.

Don/Doña ..., con DNI nº ..., con domicilio en ... miembro de la Federación Vasca de Baloncesto, por medio del presente escrito manifiesta que se somete expresamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos establecido y regulado por la Federación, para la resolución de aquellas diferencias o conflictos que pueda surgir entre la Federación y quien suscribe o entre otros federados o miembros y quien suscribe,

En ..., a ...
Fdo.

3.- Modelo club o agrupación deportiva.

Don/Doña ..., con DNI nº ..., actuando en nombre y representación de ..., con domicilio en ..., NIF nº ... y licencia de la Federación Vasca de Baloncesto número ..., por medio del presente escrito manifiesta que la entidad a la que representa se somete expresamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos establecido y regulado por la Federación, para la resolución de aquellas diferencias o conflictos que pueda surgir entre la Federación y quien suscribe o entre otros federados o miembros y quien suscribe,

En ..., a ...
Fdo.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena:

Bizkaiko Saskibalo Federazioak bere lurraldean dituen eskumenak zainduko ditu bere estatutu eta araudietan xedatzen denaren arabera, bereziki honako hauei dagokienez:

- 1.- Bere lehiaketan antolatzeari.
- 2.- Tramitazioaren eskubideei eta inskripzioari, federazioen dekretuan ezarritakoaren arabera.
- 3.- Jurisdikzio-batzordeei (lehiaketakoa eta apelaziokoa)
- 4.- Autonomia Erkidegoan federazioen gaineko araudiaren garapenaren ondorioz dituen beste eskumenei.

Bigarrena:

Klubei honakoa jakinarazi nahi zaie: Euskal Saskibalo Federazioari edo Espainiako Federazioari bidali nahi dieten edozein idazki, eskaera, eta abar Bizkaiko Saskibalo Federazioaren bidez bidali behar dietela. Hala, saihestuko dute idazki horiek itzultzea eta eskatutakoa aintzat ez hartzea. Beraz, hala egitearen ondorioz sortutako kalteak klubei bakarrik egotzi ahal izango zaizkie, arau hau ez betetzeagatik.

Bizkaiko Saskibalo Federazioari ahalmena ematen zaio premiazko dokumentazioa federazioei eta klubei alde berean bidaltzeko.

Hirugarrena:

Bizkaiko Saskibalo Federazioak arautuko du federazioaren jurisdikzio-organoez ezarritako isunak ordaintzeko prozedura.

AZKEN XEDAPENA

Bizkaiko Saskibalo Federazioak, bere eskumenen barruan, ahalmena du araudi hau eta lehiaketan arau espezifikokoak interpretatu eta koordinatzeko, betiere Saskibaloiaren intereserako eta alderdi interesdunei entzunda.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera:

La Federación Vizcaína de Baloncesto salvaguardará las competencias de sus Federaciones Territoriales, en el ámbito de su competencia, de acuerdo con lo que dispongan sus Estatutos y Reglamentos y especialmente en lo relativo a:

- 1.- Organización de sus propias Competiciones.
- 2.- Derechos de diligenciamiento e inscripción de acuerdo con lo especificado en el Decreto de Federaciones.
- 3.- Comités Jurisdiccionales (Competición y Apelación)
- 4.- Cuantas competencias les puedan corresponder como consecuencia del desarrollo federativo de la Comunidad Autónoma.

Segunda:

Se recuerda a los Clubes que cualquier escrito, petición, etc. dirigidos tanto a la Federación Vasca de Baloncesto como a la Federación Española deberán ser remitidos a través de la Federación Vizcaína de Baloncesto, evitando con ello las devoluciones de los mismos, así como la no consideración de lo solicitado ocasionándoles con ello posibles perjuicios solamente imputables a los Clubes al no cumplir esta norma.

Se faculta a la Federación Vizcaína de Baloncesto para que la documentación urgente se remita a las Federaciones y Clubes al mismo tiempo.

Tercera:

La Federación Vizcaína de Baloncesto regulará el procedimiento de pago de las sanciones económicas impuestas por los Órganos Jurisdiccionales Federativos.

DISPOSICIÓN FINAL

La Federación Vizcaína de Baloncesto, en el ámbito de sus competencias, queda facultada para interpretar y coordinar el presente reglamento y las normas específicas de competiciones, en superior interés del Baloncesto y de las propias competiciones, oídas las partes interesadas.

